

gizartea eta kultura garaikidea

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



Jar zaituz harremanetan Az-rekin

info@azkunazentroa.eus



Lege gordailua BI-249-2014

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

ARTE BISUALAK / ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK /
INSTALAZIOA OTS. 22 > MAI. 1

Jesus Pueyo

El hombre orquesta (Orkestra-gizona)

Jesús Pueyo artista multidiziplinarraren *El hombre orquesta* instalazioa maiztaren 1era arte egongo da ikusgai Mediateka Galerian.

1940ko hamarkadako barietate-antzerkiaren antzera, Jesús Pueyok ikus-entzunezko pieza bat osatu du, hiru bideo-eta audio-kanal sinkronizatuz. Bertan magia, umorea, mugimendu-koreografiak eta une intimoagoak daude, eta horma baten gainean kokatutako eta bertikalki orientatutako formatu handiko hiru pantailatan proiektatzen da.

«Italiar erara egindako antzerki gisa antolatutako display honetan, egilea hainbat pertsonaiatan banatzen da, eta horiek tragikomedia digital bat osatzen dute, horretan inork parte hartu nahi ez badu ere», azaldu du artistak.

A PERTSONAIA: *Zein da istorioa?*

B PERTSONAIA: *Ez dago istoriorik.*

C PERTSONAIA: *Edo istorioa da ez dagoela istoriorik.*

A PERTSONAIA: *Argumenturik gabeko ipuina?*

C PERTSONAIA: *Horrelako zerbait.*

Jesús Pueyok idatzi eta zuzendutako ikus-entzunezko pieza egileak berak interpretatzen du, eta Raúl Lomasen laguntza izan du musika-konposizioan eta -zuzendaritzan.

JESUS PUEYO (Leioa, 1971) diziplinarteko artista 1990eko hamarkadaren hasieratik aritu da lanean, eta bere proposamenak hainbat formatutan gauzatu ditu: bideo-sorkuntza, zinema, antzerki- eta multimedia-ikusizunak, performancea, instalazioa... Hona hemen bere lanetako batzuk: *Diez personas que no deberían morir nunca* (instalazioa, zinema hedatua) edo *Serie Microcam* (kanal bakarreko bideoa).



Jesus Pueyo. *El hombre orquesta*

////////////////////
Otsailaren 22tik maiztaren
1era

Mediateka Galeria

////////////////////
 jesuspueyo.com